

ENTITATEKO BEZEROARENTZAKO ARRETA-ATALARI _____

HIPOTEKA ERATZEAN ABUSUZKO KLAUSULA BATEN ONDORIOZ
SORTUTAKO GASTUEN ERREKLAMAZIOA

Abizenak			
Izena			
NAN/AIZ			
Helbidea			
Telefonoa		Emaila:	
Mailegu zk.:		Maileguaren data:	

AZALTZEN DUT:

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaile naizen aldetik dihardut.
2. _____ notarioaren aurrean formalizatutako hipoteka-bermedun maileguaren eskritura publikoak _____ zenbakiko klausula jasotzen du. Hipoteka formalizatu eta eratzeak eragindako tributu, komisio eta gastuak eskusiboki mailegu-hartzailearen kontura izango direla xedatzen du klausula horrek.
3. Klausula kontratuaren baldintza orokorren barruan dago eta, beraz, ez zen indibidualki negoziatu.
4. Gastu guztiak bere gain hartzeko obligazioak “*desoreka handia*” eragiten dio kontsumitzaileari, Auzitegi Gorenaren abenduaren 23ko 705/2015, Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 27ko 35/2021 epaiak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2020ko ekainaren 16ko epaiak adierazten dutenez . Desoreka hori berariaz debekatuta dago Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuan, era horretako baldintzak abusuzkotzat jotzen baititu.
5. Auzitegi Gorenak 4 epai eman zituen 2019ko urtarrilean, eta horiei gehitu behar zaizkie Auzitegi Gorenaren epaia, zeinak doktrina finkatzen baitu, bai eta Europako Auzitegiaren 2020ko uztailaren 16koa ere, eta hipoteka-maileguen gastuak banatzeko moduari buruzko iritzia eman zuen. Era berean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2024ko apirilaren 25eko epaiak zehazten du noiz hasiko den zenbatzen hipoteka-gastuak itzultzeko akzioaren preskripzio-epea: (“... kontratu-klausula baten ondorioz kontsumitzaileak gastuak ordaintzen baditu, eta gerora abusuzko izaera duela aitortzen bada ebazpen judizial irmo baten bidez, ebazpen hori irmo egin zen eguna hartuko da kontuan gastu-itzulketako akzio baten preskripzio-epea zehazteko...”)
6. Klausula abusuzkoa dela egiaztatzeak berekin dakar klausula deuseza izatea eta, beraz, ordaindutako gastuak itzultzea; zehazki: jabetza-erregistroko gastuak, gestoriako gastuak eta tasazioko gastuak, bai eta hipoteka-mailegua eratzeak eragindako notario- gastuen erdia ere.

HAUXE ESKATZEN DUT:

1. Deuseza denez, _____ zenbakiko klausula ez jasotzat eman dadila.
2. Erakundeak itzuli egin behar dizkidala kontzeptu hauengatik bidegabe kobratutako _____ euroak (fakturaren kopia erantsi da) eta zuzenbidean dagozkion gainerako zenbatekoak:

- | | |
|-----------------------------|-----------------------------|
| <input type="radio"/> _____ | <input type="radio"/> _____ |
| <input type="radio"/> _____ | <input type="radio"/> _____ |
| <input type="radio"/> _____ | <input type="radio"/> _____ |

_____, 20__ ko _____ aren ____ a

Sin.: _____